

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### DULANTZIKO UDALA

#### **Onarpena ematea kirola, euskara, kultura eta gizarte ekintza arloko 2016ko dirulaguntzak emateko oinarriei**

Udalbatza honek, 2016ko irailaren 8ko aparteko bilkuran, kirol, euskara, kultura eta gizarte ekintza arloko 2016ko dirulaguntzak emateko deialdiaren oinarriak onartu zituen.

Bat etorritik Dirulaguntzen Lege Orokorrak 9. artikuluan aurreikusitakoarekin, argitaratu egiten dira oinarri horiek.

#### **2016an kirola, euskara, kultura eta gizarte ekintza arloan dirulaguntzak emateko oinarriak**

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak ematea, lehiaketa bidez, udalerrian gizarte, kultura eta kirol ekimenak, programak eta jarduerak, eta euskararen erabilera sustatzekoak, egiten laguntzeko, udalaren jarduera osatuz, betiere honela gauzatzen badira:

1) Prestakuntza bekak, gizarte, kultura eta kirol arloko ikastaroak finantzatzeko; 2015eko urriaren 1etik 2016ko irailaren 30era bitartean eginak izan behar dute.

2) Euskara ikasteko bekak, 2015eko urriaren 1etik 2016ko irailaren 30era bitartean egindako ikastaroetarako.

3) Dinamizazio proiektuak: 2015eko urriaren 1etik 2016ko irailaren 30era bitartean gauzatu-tako programak eta jarduerak.

Deialdiaren arauak dira: oinarri hauek eta dagokien udal ordenantza; azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; eta Dulantziko Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa.

Oinarri hauek arautzen dituzten dirulaguntzen kudeaketa printzipio hauen arabera egingo da: publizitatea, gardentasuna, norgehiagoka, objektibotasuna, berdintasuna eta bereizkeriarik eza; bai eta beste hauen arabera ere: eraginkortasuna zehaztutako helburuak betetzean eta efizientzia baliabide publikoen esleipenean eta erabileran.

#### **1. artikulua. Deialdiaren xedea eta helburua**

Oinarri hauek arautzen dituzten dirulaguntzen xedea da arlo hauetako proiektuak eta jarduerak sustatzea:

1. Bekak eta/edo laguntzak prestakuntza programetan parte hartzeko:

- Begiraleak eta/edo animatzaileak trebatzeko programetan parte hartzeko bekak edo laguntzak: hurrei, gazteei, hirugarren adinekoei... begira

- Bekak edo laguntzak arte trebakuntzako programetan parte hartzeko.

- Bekak edo laguntzak kirol begiraleak edota entrenatzaileak trebatzeko programetan parte hartzeko.

- Euskara ikasteko bekak.

2. Gizartea eta komunitatea sustatzeko esku-hartzeak, arlo hauetan:

- Emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna.

- Laneratzea.
  - Gizarteratzea eta/edo kulturartekotasuna.
  - Hirugarren adinekoak.
  - Umeentzako eta/edo gazteentzako hezkuntza, aisia eta astialdiko jarduketak.
  - Osasun prebentzioa.
  - Etengabeko prestakuntza eta boluntarioak sustatzea.
  - Sentsibilizazioaren ingurukoak: ingurumena...
3. Kultura sustatzeko esku-hartzeak, arlo hauetan:
- Arte prestakuntza eta sormena.
  - Herriko talde artistiko amateurak laguntzea.
  - Herritarrek parte hartzeko kultura jarduerak: jaiak...
  - Kultura zabalkundea: hitzaldiak, monografikoak, erakusketak...
  - Kultura bisitak.
  - Gizarte eta kultura arloko legez eraturako elkarte eta taldeek material ez suntsigarria eta/edo ekipamendua erostea.
4. Euskara sustatzeko esku-hartzeak:
- Euskara sustatzeko jarduerak.
5. Kirola sustatzeko esku-hartzeak:
- Kirol jarduerak.
  - Kirol ekitaldiak antolatzea eta egitea.
  - Oinarrizko kirola sustatzea.
- Honako hauek ez dira diruz lagunduko:
- Herriko zaindariaren jaietako egitarauan diruz laguntzen diren berariazko jarduerak.
  - Otordu gastuak, laguntzaile boluntarioei esker onez emandakoak izan ezik, jarduera gauzatzeko gastutzat hartzen baitira.
  - Elkartearen barne funtzionamenduaren eta kudeaketaren gastu materialak, ez eta beren jardueren zabalkundea egiteko publizitatearenak ere. Ezta elkartearen web orria mantentzeko gastuak ere.
  - Udalak eskaintzen dituen proiektuen paraleloak, nola eta ez diren udalak eskainitakoen osagarriak.
  - Klubari edo elkarteari ezarritako zehapenen ondoriozko federazio gastuak.
- 2. artikulua. Pertsona eta erakunde onuradunak**
1. Pertsona eta erakunde hauek izan daitezke dirulaguntzen onuradun:
- a) Irabazteko xederik gabeko kirol elkarte eta klubak, behar bezala erregistratuta badaude ekainaren 22ko 7/2007 Legearen, Euskadiko elkarteenaren, arabera eta elkarteen udal erregistroan, egoitza herrian badute eta beren programak eta jarduerak udalerrian baino egiten ez badituzte.
- b) Udalerrian erroldatutako pertsona fisikoak.
- c) Deialdi honetan ezin izango dute parte hartu deialdi honen xede diren jarduerak finantzatzeko berariazko hitzarmenen bat duten elkaratek.

## 2. Onuradunen betebeharrak:

### a) Gizarte, kultura eta kirol arloan prestatzeko beka:

- Dulantziko udalerrian erroldatuta egotea ikasturtea hasten denean, eta amaitzen den arte hala mantentzea.
- 16 urte beteta izatea izen-emate egunean.
- Deialdiaren xede den zentro eta ikastaroren batean matrikulatuta egotea.
- Prestakuntza ikastaroak 2015eko urriaren 1etik 2016ko irailaren 30era bitartean egitea.
- Bermatzea jaso direla ikastaroan eman diren orduen ehuneko 75 gutxienez, edo egiaztatzea ikastaroa gainditu dela matrikulatuta egon den zentroan, eta hantxe baino ez.
- 26 urte baino gutxiago izatea edo langabezian egotea.
- Egindako ikastaro adina beka eska daiteke.

### b) Euskara ikasteko beka:

- Dulantziko udalerrian erroldatuta egotea ikasturtea hasten denean, eta amaitzen den arte hala mantentzea.
- 16 urte beteta izatea izen-emate egunean.
- Prestakuntza ikastaroak 2015eko urriaren 1etik 2016ko irailaren 30era bitartean egitea.
- Bermatzea jaso direla ikastaroan eman diren orduen ehuneko 75 gutxienez, edo egiaztatzea ikastaroa gainditu dela matrikulatuta egon den zentroan, eta hantxe baino ez.
- Matrikulatuta egotea Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE) onartutako euskaltegi edo ikastaroren batean, edo Udako Euskal Unibertsitatearen (UEU) ikastaroren batean.
- Barnetegiren batean ikasiz gero, aurreko betekizuna betetzea. Kasu horretan, ikasketa kostuak baino ez dira lagunduko diruz; ostalua eta mantenua ikasleak ordainduko ditu.
- Hautatutako ikastaroa helduen euskalduntze edo alfabetatzeko curriculumaren proiektu oso baten parekoa izango da gutxienez.
- Euskara ikasteko beste dirulaguntzaren bat eskatzeko aukera izanez gero, dagokion erakundearen ebazpena aurkeztu beharko da eta, hura izapidetzen ari badira, egindako eskaera.

### c) Gizarte, kultura eta kirol programak eta euskara sustatzekoak:

- 2015eko urriaren 1etik 2016ko irailaren 30era bitartean udalerrian egindako esku-hartzeak gizarte, kultura, kirola eta euskara sustatzeko.
- Haien jardun esparruak eragina izatea Dulantziko udalerrian.

## 3. Hauek ez dira onuradun izango:

Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, 13.2 eta 13.3 artikuluetan jasotzen dituen egoeraren batean daudenak.

### 3. artikulua. Aurrekontuko zuzkidura

Hau da 2016rako aurrekontu zuzkidura:

Gizarte ekintza eta kultura arloko beka eta programetarako dirulaguntzetan, 14.500 euro, aurrekontu partida hauetatik: 231.481.000, 334.481.000, 337.481.000. Beka eskaerarik badago, ehuneko 6 horretarako erabiliko da.

Kirol arloko beka eta programetarako dirulaguntzak, 25.000 euro, 341.480.00 aurrekontu partidatik. Beketarako 600 emango dira (341.480.000).

Euskara ikasteko beketarako dirulaguntzak: 4.000 euro, 335.480.000 aurrekontu partidatik.

Dirulaguntzak borondatezkoak dira, eta alde zuzenetik jaso izanak ez du berriro jasotzeko eskubiderik sortzen.

Udalaren dirulaguntzak bateragarriak dira eskatzaileek eskura ditzaketan beste batzuekin; dena dela, udalaren dirulaguntzaren zenbatekoak, beste erakunde batzuen beste laguntza batzuekin batera zein bakarrik, ezin izango du gainditu egindako jardueraren defizita.

#### 4. artikulua. Zenbatekoa

Zenbatekoak zehaztuko dira artikulua honetan xedatzen diren diruz laguntzeko moduko jardueretarako ezarritako mugen arabera, betiere kontuan izanik ez dela diruz lagunduko kasu bakoitzean aurkeztutako gastuen ehuneko 50 baino gehiago, euskara ikasteko eta kirol arloko beken kasuan izan ezik, eta inoiz ezingo dela dirulaguntza gisa eman elkarteak bere jardura guztietarako duen urteko defizita baino gehiago.

Kasu guztietan, baldin eskaeren kopurua eta eskatutako dirulaguntzen zenbatekoa direla-eta dirulaguntzen gehieneko ehunekoak txikitu behar badira aurrekontuan ezarritako partidara doitzeko, txikitzea proportzioan ezarriko zaie jardura guztiei.

Jardura lerroetakoren batean zuzkidura agortuko ez balitz nahiz eskaerarik aurkeztu ez delako nahiz bete beharreko baldintzak betetzen ez direlako, soberan geratu den kopurua besteren bati gehitu ahalko zaio, oinarri hauetako 7. artikuluan xedatzen den instrukzio organoak egiten duen proposamenaren arabera.

##### 1. Prestakuntza beka:

- Bekak edo laguntzak arte trebakuntzako programetan parte hartzeko: kostuaren ehuneko 50eraino; gehienez 200 euro.

- Bekak edo laguntzak begiraleak eta/edo animatzaileak trebatzeko programetan parte hartzeko (haurrei, gazteei, hirugarren adinekoei... begira): diruz lagun daitekeen aurrekontuaren ehuneko 50eraino, gehienez 200 euro.

- Bekak edo laguntzak kirol begiraleak eta entrenatzaileak trebatzeko programetan parte hartzeko: kostuaren ehuneko 50eraino; gehienez, 200 euro egiten den ikastaro bakoitzeko.

- Dirulaguntzak, guztira eta eskatzaileko, ezin izango ditu 400 euroak gainditu.

##### 2. Bekak edo laguntzak euskara ikasteko:

- Langabetuei eta 26 urte baino gutxiago duten ikasleei, matrikularen eta kuoten kostuaren ehuneko 80ko laguntza emango zaie. Langabezian ez dauden pertsonentzat, dirulaguntza ehuneko 32koa izango da. Urtean zehar onuradunaren lan egoera aldatzen bada, lan egiten duen hilabete bakoitzeko ehuneko 4 murriztuko da dirulaguntza.

- Dirulaguntza ezin da 700 euro baino gehiagokoa izan eskatzaileko.

##### 3. Gizartea eta komunitatea, kultura eta euskara sustatzeko programak:

- Gizarte, kultura eta prestakuntza jarduerak: diruz lagundu daitekeen zenbatekoaren ehuneko 50eraino; gehienez 1.000 euro.

- Gizonen eta emakumeen aukera berdintasuna sustatzeko jarduerak: diruz lagundu daitekeen jardueraren kostuaren ehuneko 50eraino; gehienez 1.000 euro.

- Euskararen erabilera sustatzeko jarduerak: diruz lagundu daitekeen jardueraren kostuaren ehuneko 50eraino; gehienez 1.000 euro.

- Laguntzak talde artistiko amateurrentzat:

Materiala erosteko (instrumentu materiala, partiturak, antzerkirako materiala, jantziak, eta abar): aurrekontuaren ehuneko 50eraino; gehienez 600 euro.

Jaialdietan parte hartzeko: gehienez 1 urteko, eta udalerrian erroldatutako taldekideen joan-etorrien kostuaren ehuneko 50eraino; gehienez 600 euro.

- Dirulaguntzak ikuskizunak antolatzeko eta egiteko: kostuaren ehuneko 50eraino; gehienez 1.000 euro.

- Laguntzak kultura txangoen urteko programarako: udalerrian erroldatutako parte hartzaileen garraio, sarrera eta gida zerbitzu kostuaren ehuneko 40raino; gehienez 500 euro.

- Laguntzak hirugarren adinekoen gizarte bidaien urteko programarako: erroldatutako parte hartzaileen kostuaren ehuneko 50eraino; gehienez 1.000 euro.

- Laguntzak musika taldeak kontratatuzeko, 2016ko herriko jaietan kaleak alai ditzaten: kostuaren ehuneko 40raino; gehienez 1.600 euro.

- Laguntzak bertako eragileek, legez eraturako elkarte edo taldeek, material ez suntsigarria eta/edo ekipamendua erosteko: kostuaren ehuneko 40raino; gehienez 500 euro.

Hainbanaketa egin beharra gertatuz gero, eskatzaile bakoitzeko kopuruak ez du gaitutako erakunde eskatzaile bakoitzeko aurrekontu partidaren ehuneko 25, alde batera utzita zenbat programak edo jarduerak eskatzen duten dirulaguntza.

#### 4. Kirol arloko programak:

a) Dirulaguntza, udalerrian erroldatutako eskola adineko gazte edo kirolari gazte bakoitzeko

- Federatu fitxa badute eta lehiaketa federatuetan jokatzen badute

Entrenatzaileak titulua eta ordainsaria baditu:	138,00 euro kirolari bakoitzeko
Entrenatzaileak ordainsaririk ez badu:	61,50 euro kirolari bakoitzeko

- Federatu fitxa badute eta lehiaketa federatuetan jokatzen badute

Entrenatzaileak ordainsaria bai baina titulurik ez badu:	119,00 euro kirolari bakoitzeko
Entrenatzaileak ordainsaririk ez badu:	61,50 euro kirolari bakoitzeko

- Federatu fitxa badute baina lehiatzen ez badira

Entrenatzaileak titulua eta ordainsaria baditu:	95,00 euro kirolari bakoitzeko
Entrenatzaileak ordainsaririk ez badu:	49,50 euro kirolari bakoitzeko

- Federatu fitxa badute baina lehiatzen ez badira

Entrenatzaileak ordainsaria bai baina titulurik ez badu:	84,00 euro kirolari bakoitzeko
Entrenatzaileak ordainsaririk ez badu:	49,50 euro kirolari bakoitzeko

- Eskola fitxa badute eta eskola arteko lehiaketetan aritzen badira

Entrenatzaileak titulua eta ordainsaria baditu:	106,50 euro kirolari bakoitzeko
Entrenatzaileak ordainsaririk ez badu:	30,00 euro kirolari bakoitzeko

- Eskola fitxa badute eta eskola arteko lehiaketetan aritzen badira

Entrenatzaileak ordainsaria bai baina titulurik ez badu:	87,00 euro kirolari bakoitzeko
Entrenatzaileak ordainsaririk ez badu:	30,00 euro kirolari bakoitzeko

- Eskola fitxa badute baina lehiatzen ez badira

Entrenatzaileak titulua eta ordainsaria baditu:	76,00 euro kirolari bakoitzeko
---	--------------------------------

Entrenatzaileak ordainsaririk ez badu:	30,00 euro kirolari bakoitzeko
--	--------------------------------

- Eskola fitxa badute baina lehiatzen ez badira

Entrenatzaileak ordainsaria bai baina titulurik ez badu:	64,00 euro kirolari bakoitzeko
--	--------------------------------

Entrenatzaileak ordainsaririk ez badu:	30,00 euro kirolari bakoitzeko
--	--------------------------------

b) Laguntzak, udalerrian erroldatuta dagoen eta federatu fitxa duen adin nagusiko kirolari bakoitzeko:

30 euro pertsonako

- 1. eta 2. idatz zatietan ezarritakoaren arabera elkarteei emango zaien dirulaguntzak ezin du inolaz ere izan dirulaguntzetarako esleitutako guztizko zenbatekoaren ehuneko 70 baino gehiago.

- 1. eta 2. idatz zatietan ezarritakoaren eta jasotako eskaeretako irizpideen arabera azken zenbatekoa handiagoa bada ekitaldietarako esleitutako guztizko zenbatekoa baino, ekarpena hainbanatu beharko da.

d) Laguntzak, 7 egunetik beherako kirol ekitaldiak edo jarduerak antolatzeko eta egiteko (4.000,00 euro)

- Ekitaldi bakoitzeko gehienez ere 1.000,00 euro emango da, eta ekitaldiaren kostuaren ehuneko 70 edo gutxiago izan beharko du beti.

- Inolaz ere ezingo da gainditu ekitaldiaren defizit zenbatekoa.

- Faktura bidez egiaztatu daitezkeenak baino ez dira gastutzat hartuko.

- Lunchak ez dira diruz lagunduko, salbu halakoen bidez ordaintzen bazaie laguntzaileei (faktura aurkeztu beharko da).

- Jasotako eskaeretako irizpideen arabera, baldin azken zenbatekoa handiagoa bada ekitaldietarako esleitutako guztizko zenbatekoa baino, ekarpena hainbanatu beharko da.

- Dirulaguntzak justifikatzearekin batera, ekitaldiari buruzko memoria eta behin betiko gastuen eta sarreren azken zerrenda ere aurkeztu beharko dira.

##### 5. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak

Eskatzaileek ondoren zerrendatzen diren agiriak aurkeztu behar dituzte:

a) Prestakuntza bekak:

Agiri orokorrak:

- Eskabidea eredu ofizialean (S-A eredu).

- Eskatzailearen NAN/AIZaren fotokopia.

- Prestakuntza zentroak egindako matrikularen frogagiria, hauek ere egiaztatzen dituen: ikasturtea gainditu izana, gutxienez ehuneko 75eko asistentzia, ikasturtearen hasiera eta amaiera datak eta ikastaroaren kostua.

- Matrikula eta kuotak ordaindu izanaren agiria.

- Zinpeko aitortpena: xede bererako beste administrazio, erakunde edo entitate publikoren baten dirulaguntzarik edo laguntzarik eskatu edo jaso den ala ez adierazita. Beste dirulaguntzaren

bat jaso bada, zenbatekoa adierazi beharko da, baita zein administrazioek eman duen ere; halaber, datuak benetakoak diren egiaztatzeko agiria aurkeztu beharko da (I. eranskina).

- Dulantziko Udalarekin zerga betebeharrak egunean direla egiaztatzen duen agiria (udalak emango du).

- Langabezian egonez gero, hori ziurtatzen duen agiria.

- Diruz lagundua den bitartean eskatzailea udalerrian erroldatuta dagoela egiaztatzen duen agiria (udalak emango du).

b) Euskara bekak:

- Aurreko idatz zatian prestakuntza beketarako zehaztutako agiriak.

- Barnetegietakoak: xehatu egingo dira gastuak, irakaskuntzakoak alde batetik, eta mantenukoak eta ostatukoak bestetik.

- Langabetuen kasuan, egiaztatu beharko dute dirulaguntza jaso duten aldi guztian egoera horretan egon direla.

- 26 urtetik beherako ikasleek: ikasketa ofizialetako matrikularen fotokopia, zeinak ikasle izaera egiaztatzen baitu.

- Dirulaguntza aldiko lan bizitzaren kopia.

- Dulantziko Udalarekin zerga betebeharrak egunean direla egiaztatzen duen agiria (udalak emango du).

c) Gizarte, kultura eta euskara arloko jarduera proiektuak:

- Eskaera ofiziala (S-B eredia).

- Eskatzailearen NAN/AIZa eta elkartearen idazkariaren ziurtagiria, egiaztatzen duena eskatzailearen ordezkatze ahalmena, aurkeztutako datu guztiak egia direla eta elkartearen IFZ (nola eta eskatzailea ez den aurreko deialdiko pertsona bera).

- Elkarateak dirulaguntza eskatzeko hartutako erabakia (I. eranskina).

- Estatutuen eta elkarte edo erakundearen dagokion erregistroan legez eraturik eta inskribaturik dagoela egiaztatzen duten agirien kopia, baldin eta lehenengoz eskatu badute edo, udal erregistroan egon arren, estatutuak aldatu badituzte.

- Ziurtagiria, eskatzaileak Gizarte Segurantzako betebeharrak eta zerga betebeharrak egunean eta beteta dituelakoa; halakoaren faltan, zinpeko aitortpena, betebeharrak fiskal eta/edo tributuzkoetan egunean dagoelakoa (II. eranskina). Ziurtagiri horiek eskatu egin ahal izango dira, egoki iritziz gero.

- Egindako proiektuaren azalpen memoria: parte hartzearen indizeak, lortutako emaitzen balorazioa, bertan sartuta jardueraren izaera inklusiboa, eta kideak bertan bazterketarik gabe hartu dutela parte, eta bereziki haurren jardueretan. Lehiaketa ofizial guztietan, haurren kategoriaraino, fitxa bat bete eta memoriarekin batera entregatu beharko da, bertan jasota parte hartzaileak, eta kiderik baztertu ez dela frogatzeko balioa izango du.

- Elkaratearen gastu eta diru sarreren balantze orokorra.

- Gastu eta diru sarreren balantzea, xehatuta diruz lagundutako aldian egindako jarduera bakoitzeko.

- Jatorrizko fakturak. Zenbatekoak 50 eurotik beherakoak badira, gastua egiaztatzen duen beste zernahi agiri.

- Fakturak betekizun hauek bete behar dituzte:

- Fakturaren data diruz lagundutako aldikoa izatea.
- Faktura egilearen eta hartzailearen izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Hornitzailearen zigilua edo sinadura.
- Fakturaren kontzeptua.
- Prezioa (BEZa barne dagoen ala ez zehaztuta) eta PFEZaren atxikipena, hala badagokio.
- Aurkeztutako fakturen ordainketaren egiaztagiria, 200 euro baino gehiagoko gastuetan.
- Langile gastuak badaude edo elkarrekin PFEZaren atxikipena duten fakturak aurkezten badituzte, egiaztatu beharko da atxikipenak ordaindu zaizkiola Foru Aldundiari, 190 ereduaren kopia bidaliz.
- Zinpeko aitortpena: xede bererako beste administrazio edo erakunde edo entitate publikoren baten beste dirulaguntzarik edo laguntzarik eskatu edo jaso den ala ez. Beste dirulaguntzaren bat jaso bada, zenbatekoa adierazi beharko da, baita zein administraziok eman duen ere; halaber, datuak benetakoak diren egiaztatzeko agiria aurkeztu beharko da (III. eranskina).
- Banketxeak emandako ziurtagiria, kontu zenbakia eta titularra jakinarazten dituen, elkarrekin izenean, nola eta udalean aurrez jasota ez dagoen.
- Dulantziko Udalaren laguntza dela-eta egindako publizitatearen frogagiria.
- Dulantziko Udalarekin zerga betebeharrak egunean direla egiaztatzen duen agiria (udalak emango du).
- d) Kirol jardueren proiektuak
- Eskaera ofiziala (S-B eredu).
- Eskatzailearen NAN/AIZa eta elkarrekin idazkariaren ziurtagiria, egiaztatzen duena eskatzailearen ordezkatze ahalmena, aurkeztutako datu guztiak egia direla eta elkarrekin IFZ (nola eta eskatzailea ez den aurreko deialdiko pertsona bera).
- Elkarrekin dirulaguntza eskatzeko hartutako erabakia (I. eranskina).
- Estatutuen eta elkarte edo erakundeen dagokion erregistroan legez eraturik eta inskribaturik dagoela egiaztatzen duten agirien kopia, baldin eta lehenengoz eskatu badute edo, udal erregistroan egon arren, estatutuak aldatu badituzte.
- Ziurtagiria, eskatzaileak Gizarte Segurantzako betebeharrak eta zerga betebeharrak egunean eta beteta dituelakoa; halakoaren faltan, zinpeko aitortpena, betebeharrak fiskal eta/edo tributuzkoetan egunean dagoelakoa (II. eranskina). Ziurtagiri horiek eskatu egin ahal izango dira, egoki iritiz gero.
- Egindako proiektuaren azalpen memoria: parte hartzearen indizeak, lortutako emaitzen balorazioa, bertan sartuta jardueraren izaera inklusiboa, eta kideak bertan bazterketarik gabe hartu dutela parte, eta bereziki haurren jardueretan. Lehiaketa ofizial guztietan, haurren kategoriaraino, fitxa bat bete eta memoriarekin batera entregatu beharko da, bertan jasota parte hartzaileak, eta kiderik baztertu ez dela frogatzeko balioa izango du.
- Elkarrekin gastu eta diru sarreren balantze orokorra.
- Gastu eta diru sarreren balantzea, xehatuta diruz lagundutako aldiaren egindako jardueraren bakoitzeko.
- Langile gastuak badaude edo elkarrekin PFEZaren atxikipena duten fakturak aurkezten badituzte, egiaztatu beharko da atxikipenak ordaindu zaizkiola Foru Aldundiari, 190 ereduaren kopia bidaliz.



- Zinpeko aitortpena: xede bererako beste administrazio edo erakunde edo entitate publikoren baten beste dirulaguntzarik edo laguntzarik eskatu edo jaso den ala ez. Beste dirulaguntzaren bat jaso bada, zenbatekoa adierazi beharko da, baita zein administrazio eman duen ere; halaber, datuak benetakoak diren egiaztatzeko agiria aurkeztu beharko da (III. eranskina).
- Banketxeak emandako ziurtagiria, kontu zenbakia eta titularra jakinarazten dituen, elkar-tearen izenean, nola eta udalean aurrez jasota ez dagoen.
- Dulantziko Udalaren laguntza dela-eta egindako publizitatearen frogagiria.
- Dulantziko Udalarekin zerga betebeharrak egunean direla egiaztatzen duen agiria (udalak emango du).
- Entrenatzaileen kontratuen kopia.
- Jardueran parte hartu duten eta udalerrian errolatuta dauden kirolarien zerrenda.
- Kirol jarduerak antolatzen direnean jatorrizko fakturak aurkeztu beharko dira, aurreko le-rraaldean araututakoarekin bat etorritz.

#### **6. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea**

2016ko urriaren 10etik azaroaren 10era bitartean aurkeztuko dira; ez da izapidetuko eskaerarik epe horretatik kanpo.

Dokumentazioa Sarrera Erregistro Orokorrean aurkeztuko da edo 30/1992 Legearen, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenaren, 38. artikuluan xedatutako eraren batean (11/2007 Legeak, herritarren zerbitzu publikoetarako sarbide elektro-nikoari buruzkoak, aldatu zuen artikulua hori).

Eskaerak baldintza guztiak betetzen ez baditu, interesdunari eskatuko zaio zuzen dezala ha-mar egun balioduneko epean, bat etorritz azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 71.1 artikuluan xedatutakoarekin.

#### **7. artikulua. Emateko eta ebazteko prozedura**

Instrukzio organoaren buru arlo bakoitzeko zinegotzi ordezkaria izango da, eta kideak Dulantziko Udaleko gizarte, kultura, kirol eta euskara arloetan lan egiten duten teknikariak, zeinek ofizios egingo baitituzte ebazpen proposamena idazteko beharrezko jotzen diren datu zehazte, ezagutze eta egiaztatze jarduera guztiak.

Eskaerak aztertuta, behin-behineko ebazpen proposamena egingo da, eta dagokion batzorde informatiboan aztertuko da, irizpena emateko; gero, interesdunari jakinaraziko zaie, eta hamar egun baliodun emango zaizkie egoki jotzen dutena alegatzeko.

Egindako alegazioak ebatzita, instrukzio organoak behin betiko ebazpen proposamena egingo du, eta osoko bilkurako gaiak prestatzen dituen batzordeari bidaliko zaio; hark aldeko irizpena eman ostean, gobernu batzarrak ebatziko du dirulaguntzak ematea, eta interesdunari behin betiko ebazpena jakinaraziko zaie.

Ebazpenak administrazio bidea agortzen du, bertan azalduko da haren aurka zer errekurtsio jar daitezkeen, eta jakinaraziko da 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 59. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Eskaerak gehienez ere hiru hilabeteko epean ebatziko dira, eskaerak aurkezteko azken egu-netik aurrera, zeina 6. artikuluan xedatzen baita. Epe hori amaitu eta ebazpen adierazirik eman ez bada, ulertuko da eskaera ukatu egin dela.

Emandako dirulaguntzak udalaren iragarki taulan eta web orrian argitaratuko dira, pertsona orok jakin dezan, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, xedatutakoarekin bat etorritz.

### 8. artikulua. Onuradunen betebeharrak

- Dirulaguntza ematen duen organoari justifikatzea betetzen direla betekizunak eta baldintzak, gauzatu dela jarduera eta bete dela dirulaguntza emateko edo gozatzeko arrazoi izan den helburua.
- Halaber, dirulaguntza ematen duen organoak egiten dituen egiaztapen jarduketa guztiak onartuko ditu, bai eta kontrol organo eskudunek, estatukoek zein erkidegokoek, finantzak kontrolatzeko eta egiaztatzeko egiten dituztenak ere, eskatzen zaien informazio eta agiri guztiak emanaz, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatutakoak barne.
- Laguntza ematen duen organoari jakinaraziko dio diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuk lortu izana.
- Egiaztatzea bete dituela zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.
- Pertsona juridikoa izanez gero, kontabilitate liburuak, egindako erregistroak eta merkataritzako gainerako agiriak behar bezala auditatuta edukitzea, kasu bakoitzean onuradunari aplikatzekoa den merkataritzako eta sektoreko legerian ezarritakoaren arabera.
- Elkarrekin jasotako funtsen aplikazioaren egiaztapenak gordeko ditu, agiri elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol jarduketan xede izan baitaitezke.
- Jardueraren publizitatean adierazpen hau azaldu beharko da: "Dulantziko Udalaren laguntzarekin / con la colaboración del Ayuntamiento de Alegría-Dulantzi"; baita udalaren armarria ere.
- Dirulaguntza ordaintzeko, ezinbestekoa izango da Dulantziko Udalak izapidean jarritako itzulketa edo zehapen prozesu oro bukatuta izatea.

### 9. artikulua. Dirulaguntzak ordaintzea

Behin interesatuei jakinarazita behin betiko ebazpen proposamena, 30 eguneko epean egingo da ordainketa.

Onuradunek oinarri hauetan jasotako betebeharrak eta zehaztapenak ez betetzeak dirulaguntza errebotatzea ekar dezake, eta emandako dirulaguntza itzultzeko prozedura aplikatuko da, Dulantziko Udalaren dirulaguntzen ordenantzan araututakoaren arabera.

### 10. artikulua. Araudi aplikagarria

Oinarri hauetan xedatu ez denerako, honako hauek hartuko dira kontuan: Toki araubidearen araudia; Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen Legea (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak emandako idazketan); azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; dirulaguntzen udal ordenantza; eta aplikatzekoak diren gainerako arauak.

Deialdi honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, zuzenean, Gasteizko epaitegietan, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, aukerako berraztertze errekurtsua, deialdia onartu duen organoari berari, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

### 11. artikulua. Datu pertsonalen babesa

Bat etorri abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, datu pertsonalen babeseak, eta otsailaren 25eko 2/2004 Legeak, erakunde publikoen jabetzako datu pertsonalen fitxategienak eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzearenak xedatutakoarekin, deialdi hau izapidetzeko bildutako datu pertsonalak Dulantziko Udalaren 3 zenbakiko fitxategian jasoko dira, zeina sartuta baitago Dulantziko Udalaren datu pertsonalen fitxategiak sortu eta aldatzeko arauan.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkatzeko eskubideak erabiltzeko Dulantziko Udalera jo behar da.

Era berean, deialdi honetan parte hartzen duten pertsonak baimena ematen diote Dulantziko Udalari aurkeztutako agirietan emandako datuak egia direla egiaztatzeko, beste erakunde publiko batzuek dituztenekin erkatuz.

Dulantzi, 2016ko irailaren 8a

*Alkatea*

*JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA*